

## Bilbon, 2009ko urtarrilaren 30ean

Andres Urrutia euskaltzainburua,  
Beñat Oihartzabal, buruordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Andres Iñigo, Jagon sailburua,  
Jose Antonio Arana Martija,  
Adolfo Arejita,  
Aurelia Arkotxa,  
Jean-Louis Davant,  
Patxi Goenaga,  
Jean Haritschelhar,  
Joseba Lakarra,  
Emile Larre,  
Miren Lourdes Oñederra,  
Andoni Sagarna,  
Patxi Salaberri,  
Pello Salaburu,  
Ibon Sarasola,  
Ana Toledo,  
Joan Mari Torrealdai eta  
Patxi Uribarren euskaltzainak.

Pello Telleria idazkariordea, Jose Antonio Aduriz eta Alfontso Mujika, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren Azkaratek, ahala P. Goenagari. Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori. Sagrario Alemanek, ahala A. Iñigori. Mikel Zalbidek, ahala A. Urrutiari. Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta, bertan direla.

**1. Bilera hasi baino lehenagoko oharrak.** Euskaltzainburuak, bilduak agurtu ondoren, ahoz honako oharrok egin ditu:

**1.1.** Batzarraren irauteaz. A. Urrutia euskaltzainburuak bilkura goizez besterik ez dela izango jakinarazi die etorririkoei.

**1.2.** Wi-Fi sisteman sartzeko aukera. Hemendik aurrera osoko batzarra egoitzan egiten denean aukera izango da Interneterako sarbidea izateko, Wi-Fi sistemaren bidez.

1.3. Tx. Peillenen osasunaren berri. Euskaltzainburuordeak Tx. Peillen euskaltzainari egin berri dioten ebakuntzaren berri eman du; dena ongi joan dela baina oraindik zati baterako susperraldia pasatu beharko duela jakinarazi du.

1.4. **B. Oihartzabali zorionak.** Euskaltzainburuak Beñat Oihartzabal euskaltzainburuordeari zorionak adierazi dizkio Baionako Hiria eta Eusko Ikaskuntza saria eman berri diotelako.

2. **Aktari buruzko oharra.** J. L. Lizundiak egindako ohar eta zuzenketekin, abenduko akta ontzat eman da.

### 3. Exonomastika

3.1. **Europako hiri nagusiak (I) onartzea.** J. L. Lizundiak hitza Alfonso Mujikari eman dio, zerrendako izenez jasoriko oharra eta azal ditzan. Hauek egin dituzte oharra: Miren Azkarate, Jean Haritschelhar, Miren Lourdes Oñederra, Mikel Zalbide eta Andres Iñigok. Egindako oharra aintzat harturik, *Augsburg, Genova, Gante, Malinas, Porto, Treveris, Gdansk, Helsingor* eta *Gijón* toponimoei lehentasuna ematea erabaki da. M. L. Oñederrak exotoponimoen ahoskeraz egindako oharra ere ontzat eman da.

J. Haritschelharrek *Napoles* eta *Brujas*-en kasuetan idazkera bakarra ematea eskatu du. Botoetara joanda, ordea, bitasuna uztea onartu da. Gero, idazkera zirilikoari buruzko oharra irakurri ondoren, hizkuntza horien transkripzio- eta korrespondentzia-taulak idatzirik eman dira.

3.2. **Europako hiri nagusiak (Alfabeto zirilikoaren euskarara aldatzeko transkripzio-irizpideak) aurkeztea.** J. L. Lizundiak hitza X. Kintanari eman dio, berorrek batzordean onarturiko irizpideekin Alfontso Mujikak prestatuturiko transkripzio-aula azal dezan. Eskaturiko azalpenak ere eman dira.

Oharra Euskaltzaindian aurtengo otsailaren 21erako igortzea erabaki da.

### 4. Hiztegi Batua

Pello Salabururen zuzendaritzapean, eta Jose Antonio Aduriz idazkariaren laguntzarekin, *establezimendu*-tik *estentsibo*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

### 5. Esku artekoak

5.1. **Antonio Zavalaren hilberri-txostena.** Antonio Zavala euskaltzain emeritua 2009ko urtarrilaren 2an hil zela gogorarazi du Euskaltzainburuak. A. Zava-

laren hilberri-txostena egiteko, Zuzendaritzak Jose Mari Iriondo euskaltzain urgazlea eta Herri Literatura batzordekidea proposatu du eta onartu egin da.

**5.2. Azkue Bibliotekako soberazko liburuak.** Azkue Bibliotekan sobera dauden liburuen zerrenda banatu da, 2007an eta 2008an pilatuena. Horrekin Pruden Gartzia zuzendariaren gutuna dago, liburuok eskatzeko prozedura-azalpenekin, horien interesa duketen euskaltzainek eska ditzaten.

**5.3. 2008ko Azkue Sariak.** Azkue Sarietarako Epaimahaia iazko kide berekin osatzea erabaki du Zuzendaritzak, eta halaxe berretsi da:

A mailan: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Antton Irusta Zamalloa.

B mailan: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Kirmen Uribe.

## 6. Azken ordukoak

**6.1. Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiari diru-laguntza handiagoa.** Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Alderdi Sozialistak aurrekontuei egindako emendakinari esker, 2009. urterako 75.000 euro gehiago ematea erabaki du, Andres Iñigok erran duenez, aurrekoan baino % 46 gehiago.

**6.2. Nafarroako Unibertsitate Publikoarekiko hitzarmena.** Urtarrilaren 21ean Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Euskaltzaindiak sinatu zuten hitzarmenaren Jarraipen Batzordean hiruna kide ukanen dituzte bi erakundeek. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak hiru kide hauek proposatzen ditu: Patxi Salaberri, koordinatzailea izanen dena, Andres Iñigo eta Juan Jose Zubiri euskaltzain urgazlea. Ontzat eman da.

**6.3. Joan Mari Torrealdaien eta Imanol Muruaren azalpena, SIADECOren bidez eginen den inkestaz.** Gure Erakundearen 90. urteurrenaren ospakizunen barruan, Euskaltzaindiaren irudiaz, nortasunaz eta bere lanaz gure gizarteak duen pertzepzioaz SIADECOK txosten bat egin eta, ondoren, Akademiari eskuratu dio, gure lanarekin jendea konforme dagoen ala ez jakin eta hortik behar diren ondorioak ateratzeko. Metodologia hau izanen da: lehenik 10 laguni elkarriketa sakonak eginen zaizkie eta ondoren 1.500 laguneren artean iritzi bilketa prestatuko da. Bigarren proiektua liburu bat prestatzea izanen da, Euskaltzaindiari buruzkoa, irailean ateratzeko. Obra arina izanen da, Imanol Muruaren laguntzaz egitekoa, eta, horretarako, Euskaltzain osoei laguntza eskatuko zaie

**6.4. Hurrengo batzarra.** Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra 2009ko otsailaren 27an, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian izango dela iragarri du

Euskaltzainburuak. Goizean ohiko bilkura izango da eta arratsaldean hilberri-txostenak irakurriko dira.

**6.5. Banaturiko liburua.** Euskaltzainen artean *Domingo Agirrereren Gutun Bilduma*, (Euskaltzainak, 6) banatu da, Sebastian Gartzia Trujillok prestatua.

Batzarra 14:10ean amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria